

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

4034

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 8koa, Arabako Industria Administrazioiko lurralde-ordezkararena. Honen bidez, administrazio-baimena ematen da Arabako Lurralde Historikoan, Artziniega eta Aiarako udal-mugarteetan, 220 kV-ko SE Ayala – T Ayala 2 energia elektrikoa garraiatzeko linea berrindartzeko proiektuari dagokion instalaziorako aurretiko administrazio-baimena eta eraikitze.

Espediente-zk.: 01ATY 202300033.

AURREKARIAK

1.– 2023ko irailaren 29an, Red Eléctrica de España, SAUk aurretiko eta eraikitzeke administrazio-baimena eskatu zituen, Arabako Lurralde Historikoko Artziniega eta Aiarako udalerrietan, 220 kV-ko SE Ayala – T Ayala 2 energia elektrikoa garraiatzeko linea berrindartzea izeneko proiekturako.

2.– Jendaurrean jarri da proiektua, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak (energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioak, hartuneak, zuzeneko lineak eta kontsumitzaileak konektatzeko instalazioak eraikitzeke, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituenak) aurreikusitakoa betez.

3.– Horretarako, informazioa jendaurrean jartzeko izapidea betetzeko, 2024ko otsailaren 13an proiektuari dagokion dokumentazioa bidali zitzaizen Artziniega eta Aialako udalei, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturretako Sailari, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAUri, Telefónica de España, SAri eta URA – Uraren Euskal Agentziari, eta iragarkia argitaratu zen, 2024ko otsailaren 16an Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta 2024ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

4.– Halaber, 2023ko azaroaren 17an, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren aurretiazko txostena eskatu zen, Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen 35.2 artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 114. artikuluan (energia elektrikoko instalazioak garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen) ezarritakoa betez.

5.– Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zen, 2023ko azaroaren 30ekoa.

2024ko otsailaren 27an, Telefónica de España, SAren txostena jaso zen, eta ez zuen eragozpenik jarri proiektua gauzatzeko.

2024ko martxoaren 13an, Aiarako Udalaren txostena jaso zen, eta bertan, proiektatutako instalazioari buruzko ondorengo oharrak jaso ziren:

- Nekazaritza eta basogintzaren gaineko eragina eta paisaia-integrazioa.
- Lurzoru urbanizaezinean kokatzeari eta Interes Publikoko Adierazpenari buruz.
- Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruz.
- Harreman zibilak eta zortasunek nekazaritzako eraikuntza jakin batean duten eragina.

Txosten hori eskatzaileari helarazi zaio, eta erantzuna eragozpenekin jaso da. 2024ko uztailaren 3an, erantzuna Aiarako Udalari bidali zitzaion, erantzun horrekiko adostasuna adieraz zezan edo eragozpen-idatzi bat egin zezan.

2024ko uztailaren 24an, Aiarako Udalak emandako erantzuna bidali zitzaion sustatzaileari, udal horretan aurkeztutako erantzuna osa zezan, proiektuari buruzko zenbait dokumentu aurkeztuz, hala nola:

- Eragindako lineak martxan jartzeko egiaztapen- eta baimen-aktak.
- Industria Ministerioaren onespren-dokumentua (Energiaren Zuzendaritza Nagusia), linea gauzatzeko proiektuari buruzkoa.

2024ko abuztuaren 6an, Aiarako Udalaren erantzuna jaso zen, proiektuarekin ados zegoela adieraziz, sustatzailearen erantzuna jaso ondoren.

2024ko martxoaren 21ean, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuaren txostena jaso zen, eta sustatzaileari bidali zitzaion. Arabako Lurralde Historikoko Foru Sareko errepideren baten titulartasuna eta nomenklatura zuzentzeko eskatzen dute. 2024ko ekainaren 24an, sustatzailearen erantzuna jaso zen, eta ados zegoela adierazi zuen.

2024ko martxoaren 22an, Ura – Uraren Euskal Agentziaren txostena jaso zen, eta bertan ez zen inolako eragozpenik ezartzen proiektua gauzatzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Espediente hau izapidetzerakoan, energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak ezarritako xedapenak bete dira.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Industria Administrazioiko Arabako lurralde ordezkariak hau

EBAZTEN DU:

Aurretiko administrazio-baimena eta eraikitze baimena ematea Red Eléctrica de España, SAU enpresari, Arabako Lurralde Historikoko Artziniega eta Aiarako udal-mugarteetan 220 kV-ko SE Ayala – T Ayala 2 energia elektrikoa garraiatzeko linea berrindartzeko proiektua izeneko instalazioarentzat.

Ebazpen hau ematen da 48/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera eta ondorengo baldintza orokorrak kontuan hartuz:

Onartutako proiektuari jarraiki egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Lanak amaitzean, instalazioentitularrak Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onarpena eman eta abian jartzeko akta egiteko.

Obrak egiteko beharrezkoak diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentzien eta bestelakoen kaltetan izan gabe ematen da ebazpen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea horiek lortzeko betebeharretik. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioen zuzendariaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengo arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 8a.

Arabako Industria Administrazioiko lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRÍGUEZ DÍAZ.